



## Herri gogoetak: nahi dugun Astigarragarantz bidea egiten

### HERRIA

V. SAGARDO FORUMA:  
Sagardoaren, Sagarraren eta  
Turismoaren Mundua arakutzen

2

### UDAL ZERBITZUAK

Astigarragako  
Eguneko zentroa

6

### IRITZIA

Zer pentsatzen dute gure tokiko  
politikariek, udaltzainek pistolarik  
eraman behar al dute?

11

## V. SAGARDO FORUMA: Sagardoaren, Sagarraren eta Turismoaren Mundua arakatzen

Sagardoaren Lurraldeak antolatutako ekitaldia, antzinako edari horrekin lotutako sagarrari, sagardoari eta kultura turistikoari buruz arituko da.



**2023ko azaroaren 30etik abenduaren 2ra, sagardoa eta haren inguruko kultura maite dutenek ezinbesteko hitzordua izango dute V. SAGARDO FORUMEAN. Sagardoaren Lurraldeak antolatuta, urteroko ekitaldi hau mila-ka urteko edari honekin lotutako sagar, sagardo eta turismoaren nazioarteko epizentroa bihurtuko da hainbat ekitaldi desberdinen bidez.**

### **SAGARRARI ETA SAGARDOARI BURUZKO JARDUNALDI TEKNIKOAK**

Azaroaren 30ean, V. SAGARDO FORUMARI hasiera emango zaio Astigarragako Erribera Kulturgunean egingo diren jardunaldi teknikoekin. Jardunaldi horietan, sagardoaren munduko profesional nazionalak eta nazioartekoak bilduko dira, euren esperientzia eta ezagutzak partekatzeko. Sagardoaren industriak azken urteotan bizi izan duen egungo egoeraren eta bilakaeraren ikuspegi integrala eskaintzea da helburua.

Bertaratzen direnek sagarren ekoizpenari, sagardoaren elaborazioari eta edari hau inguratzen duten tradizio kulturei buruz ikasteko aukera izango dute eta nazioarteko negozio eredu berriak ezagutzeko aukera izango dute.

### **NAZIOARTEKO IV. SAGARDO LEHIAKETA**

Abenduaren 1ean, Donostiako Kursaal Biltzar Jauregian izango da Nazioarteko IV. Sagardo Lehiaketa. Mundu osoko aditu dastatzaileak biltzen dituen topaketa da, sommelierak, enologoak eta chefak barne. Lehiaketan, Alemania,



## V. SAGARDO FORUM: Explorando el Mundo de la Sidra, la Manzana y el Turismo

Sagardoaren Lurraldea ha organizado, del 30 de noviembre al 2 de diciembre, el V. SAGARDO FORUM, un evento que reunirá a personas expertas, nacionales e internacionales, para tratar sobre la manzana, la sidra y la cultura turística relacionadas con esta bebida ancestral. Durante estas fechas se celebrarán diferentes actividades:

- 30/11/2023 Jornadas técnicas sobre manzana y sidra: Se dará comienzo al V SAGARDO FORUM con unas jornadas técnicas en el Centro Cultural Erribera.
- 01/12/2023 IV. Concurso Internacional de Sidra: Catadores profesionales de todo el mundo probarán más de 200 sidras llegadas de 15 países distintos. El concurso se celebrará en el Kursaal de Donostia.
- 02/12/2023 III. Feria Internacional de Sidra: Las personas que se acerquen al Kursaal podrán degustar una amplia gama de sidras locales, nacionales e internacionales.

Además de las actividades principales, el evento ofrece también cenas y catas temáticas bajo el nombre Cider Week que combinan sidras locales e internacionales con platos de alta cocina. También habrá excursiones y visitas a museos.

Toda la información y la posibilidad de comprar las entradas está disponible en [www.sagardoforum.eus](http://www.sagardoforum.eus)



Austria, Frantzia, Erresuma Batua, Estatu Batuak, Italia eta Norvegia bezalako 15 bat herrialdetako bederatzik kategoriatan sailkatutako 200 sagardotik gora dastatu eta ebaluatuko dituzte.

### III. NAZIOARTEKO SAGARDO AZOKA

V. SAGARDO FORUMAREN urrezko amaiera Nazioarteko III. Sagardo Azoka izango da, abenduaren 2an Kursaal Jauregiko agertoki berean ospatuko dena. Ekitaldi honetan, bertaraten direnek bertako, estatuko eta nazioarteko sagardo sorta zabala dastatzeko aukera izango dute. Aukera ezin hobea da gure sagardoa nazioartean ezagutarazteko, eta baita mundu osoko sagardoaren zaporeak esploratzeko eta sagardo mota berriak ezagutzeko ere.

### CIDER WEEK ETA TXANGOAK

Jarduera nagusiez gain, V. SAGARDO FORUMeko egitarauak Cider Week izeneko afari eta dastatze tematikoak hartzen ditu barne, parte-hartzaileek bertako eta nazioarteko sagardoak goi sukaldaritzako platerekin uztartzeko aukera izan dezaten. Sagastiak, sagardotegiak eta sagardoarekin lotutako museoak bisitatzeko aukera eskainiko duten txango zirrargarriak ere izango dira, edari hau maite dutenentzat esperientzia oso bat eskainiz.

Informazio guztia eta sarrerak eroszeko aukera [www.sagardoforum.eus](http://www.sagardoforum.eus) webgunean dago eskura.

## 1 Herri Eskolako eta Astitxiki 2ko obrak

Azken hilabeteetan hainbat obra eta hobekuntza egin dira Herri Eskolan eta Astitxikin ikasturte berriari begira. Herri Eskolan dutxa bat egokitu da behe solairuan, sabaiak jaitsi dira hainbat gelatan eta argiak LED panelengatik ordezkatu egin dira. Gela horietan zeuden LED argiak, komunetakoak ordezkatzeko erabili dira eta, azkenik, gela batzuetako zorua eta hormaren akabera aldatu egin dira. Obra Hezkuntza sailak bideratu du eta aurrekontua guztira 32.334,96€koa izan da (BEZ-a barne).

Aurreko ikasturtean Udalak HH2ko egokitutako bi gelak Astitxiki 1 lokalera eraman dira orain eta beste bi gelak sartzeko Astitxiki 2 izeneko beste lokal bat egokitu da. Lokal horren horma guztiak bota dira, fondoko gelatxoak izan ezik, distribuzio berria ondo antolatzeko. Honela, Umeentzako eta irakasleentzako komuna eta bi gela egokitu dira, atzeko gela hori bulego bezala erabilgarri utziz. Horretaz gain, toldo bat jarri da kanpoko patioa estaltzeko. Lanen aurrekontua osotara 40.000 euro ingurukoa izan da (BEZa barne) eta toldoaren aurrekontua 3.206,5€koa izan da (BEZ-a barne).



## 2 Obra de Ergobia

Con la intención de adecuar el acceso al barrio de Ergobia, se ha procedido a la reparación de la acera existente entre la urbanización realizada en Pagoaga y el puente para dar una conexión accesible y adecuada.

La acera se ha ampliado hasta los 2 metros y se han cambiado las baldosas. También se han renovado las cunetas para encauzar bien las aguas pluviales y pronto se pintará un paso de cebra. Los trabajos han sido desarrollados por la empresa Laugas con un presupuesto de 17.780,95 €(IVA incluido).



## 3 Tunel Morea Emakumeon Etxea eta Emakumeon Plaza lotzeko

Duela bi urte Nagore Legarreta argazkilariak herriko emakumeekin argazki-saio batzuk antolatu zituen kultur etxe zaharreko sagastian, gauez. Irudi horien bidez, emakumeen gorputzak sexualizatu gabe eta gizartean dauden kanon estetikoetatik kanpo ikusgarritasuna eman nahi izan zitzaizen haien indarra erakutsiz. Behin argazkiak eginda, negatiboak tindatu eta kolore desberdinetako konposizioa zeramika zurietan serigrafiatu zen ondoren.

Muralerako sortutako emakumeen irudiak baliatu dira orain tunelean jarritako baldosa zurietan Emakumeon plazako lengoaiari jarraipen estetikoak emateko. Lanetan tuneleko horma bat kurbatuko da, sabaian ispilu bat jarriko da tunelari zabalera emateko eta, azkenik, argiztapena indartu egingo da. Emakumeon Etxea eta Emakumeon Plaza Tunel Morearekin lotuta geratuko dira obrak amaitu ostean.

Lanek 44.235,18 euroko aurrekontua izango dute eta Lanbi Eraikuntzak enpresak burutuko ditu.





4

#### 4 Actividades de la Asociación Galtzaur

La Asociación de Jubilados y Pensionistas Galtzaur ha dado a conocer las actividades que ofrecerá de aquí hasta que finalice el año. Las actividades entre semana son: Lunes y miércoles Bingo; martes por las mañana Euskera y por las tardes taller de Manualidades; actividades de Memoria los jueves; y curso de Informática los viernes. Esta última actividad pasa a convertirse en fija después del interés suscitado entre los socios y socias en los cursos puntuales que se celebraron con anterioridad.

Además de estas actividades fijas, la asociación también ofrecerá otras puntuales:

- 9 de noviembre: Teatro
- 11 de noviembre: Marcha regulada y comida del 27 aniversario.
- Hasta el 17 de noviembre: venta de lotería de Navidad.
- 16 de diciembre: Reconocimiento a los socios y socias que hayan cumplido 80 años.
- 21 de diciembre: Txistorrada.

#### 5 Astigarragako emakume erreferenteen bila

Ezbairik gabe Kontxa Etxeberria da astigartar emakume ezagunena, baina beste emakume asko dira herriari alor askotan ekarpena egin diotenak. Udalak sustatutako Astigarragako emakumeen memoria historikoa berreskuratzeko ikerketa-bekaren markoan, Andrea Loinaz Maizcurrena eta Eider Ugarte Rodriguez bekadunen ikerketa-lanaren helburua honakoa da: 1940. eta 2000. urte bitartean Astigarragari ekarpen esanguratsua egin dioten emakume erreferenteen bilduma osatzea.

Edozein herritarrek buruan duen emakume hori proposa dezake inkesta bidez eta bertan nahi adina emakumeen izen-abizenak zehaztu daitezke, zer alorretan egin duten ekarpena adieraziz. Inkesta digitalean (QRa) edo papearrean erantzun ahalko da (Emakumeon Etxean edo Erribera Kulturguneko harreraren jarritako buzoietan) urriaren 27ra arte. Astigartar guztien laguntza baliagarria izango da itzalean dauden emakumeak argitara eramateko.

#### 6 Belén de Norberto Almandoz

El 21 de diciembre se colocará, como cada año, el Belén de la plaza Norberto Almandoz, por lo que toca comenzar a revisar el estado de las figuras. En estos momentos son media docena de mujeres las que de forma voluntaria se encargan de revisar, reponer y vestir a los personajes del Belén. Los moldes de los personajes y las estructuras fueron creadas por el antiguo profesor del taller Astigarte, Luis Telleria, que aun hoy sigue ayudando en las reparaciones y colocación del mismo. El Belén ha ido perdiendo figuras a lo largo de los años debido a robos varios y el paso del tiempo, “pero ver las caras de los niños y niñas del pueblo durante esos días es una gozada. Es mucho sacrificio, pero reconforta” dice Arantxa Urialde, una de las voluntarias. El grupo de voluntarias hace un llamamiento para que más personas se unan a ellas para que este particular Belén de Astigarraga no se pierda.



6



5



# Astigarragako Eguneko zentroa



Adineko pertsonen arreta eta elkarbizitzarako sortua, Astigarragako Eguneko Zentroak 2012an ireki zituen ateak. Geroztik, Arrobitxulo bidean astelehenetik ostiralera goizeko 9:30etatik arratsaldeko 17:15ak arte hamabost erabiltzaile hartzen ditu bere baitan.

Herriko pertsonen lehentasuna dute Zentroak eskaintzen dituen hamabost plazak betetzeko. Egun plaza guztiak beteta daude (Astigarragako 10 erabiltzaile daude eta 5 inguruko herrietakoak). Erabiltzaile gehienak emakumezkoak dira; hamabost erabiltzaileetatik bakarrik hiru gizonezko daude; "historikoki emakume gehiago egon dira beti" esaten dute.

Eguneko Zentroa bi gela nagusietan bananduta dago eta horietan egunean zehar ekintza ezberdinak egiten dira: gimnasia, egunkaria irakurri, memoria-ko ekintzak, laborterapia, jolasak eta sukaldaritza tailerrak. Ekintza hauek egiteaz gain, garraio zerbitzua eta astean behin dutxa izateko aukera ematen du.

Biharko taldeak kudeatzen du zentroa eta, egun,zazpi pertsonen egiten dute lan bertan: koordinatzailea, hiru laguntzailek, gizarte langilea, erizaina, psikologoa eta monitorea.



## “Etortzen diren pertsonak talde baten kide direla sentiaraztea garrantzitsua da”

Maiden Murua eta Miren Serrano Astigarragako Eguneko Zentroko koordinatzaile eta gizarte langilea dira hurrenez hurren. Maideren zentroa ireki zenetik dago bertan lanean eta Mirenek hiru urte beteko ditu aurten zentroan.



### Zein da Eguneko Zentroaren helburu nagusia?

Erabiltzaileen autonomia mantentzea da helburu nagusia. Baina etortzen diren pertsonak talde batean daudela sentiaraztea ere oso garrantzitsua da guretzat. Jende gutxi egoteak arreta zuzena eskaintzeko aukera ematen digu, eta horrela etxean bezala sentitzea lortzen dugu.

### Zeintzuk dira eguneko zentro eta zaharren egoitza baten arteko desberdintasunak?

Eguneko zentroa goizez eta arratsaldetik eskaintzen den zerbitzua da. Jendea aktibo eta autonomo mantentzeko helburua du eta egunean zehar ekintza eta dinamika ezberdinak egiten dira. Horregatik pertsonen profila askoz autonomoagoa da. Hori aldatzen ari da eta askotan iristen zaizkigun pertsonak gero eta dependentzia maila altuagoa dute eta, beraz, jaso behar duten laguntza asistentzialagoa.

Egoitza bat aldiz, erabiltzaileen etxea bihurtzen da eta bere bizitzaren az-

keneko urteak bertan pasatzen ditu. Profilak askotarikoak izaten dira eta egoitzak dituen instalazioak kontuan hartuta, pertsona autonomoenetik dependentzia maila handienetaraino zerbitzua emateko antolatuta daude.

### Nolako da egun bat Astigarragako Eguneko Zentroan?

9:30etan zentroa irekitzen dugu eta erabiltzaile guztiak prest daudenean goizeko ariketei hasiera ematen diegu: errealitate bideratzeko ariketak, gimnasia, egunkaria irakurri eta beraien artean albisteak komentatu... Ekintza hauek bukatzean, paseoak egiten dira. Gero 13:00etan bazkaldu egiten dute eta ondoren siesta. Arratsaldean, meriendatu ondoren, jolasak, laborterapia, memoria-arietak, etab. egiten dituzte zentroa 17:15etan itxi arte.

Eguraldi ona egiten duenean, goizeko ekintzak kalean egiten dituzte. Nagusilan-eko boluntarioen bisitak ere jasotzen dituzte eta data zehatzetan ekintza bereziak egiten ditugu (hamai-ketako bereziak, Gabonak, eguneko zentroko urteurrena, danborrada edo erabiltzaileen urtebetetzeen ospakizunak besteak beste).

### Zein da zentrori etortzen den jendearen profila?

Oso kasu desberdinak ditugu. Gazteenak 60 urte inguru eta helduenak 98 urte ditu. Batzuk kognitibo arazoak dituzte eta beste batzuk aldiz, beste gaitz batzuen ondorioz hona etorri dira, adibidez iktus bat pairatu ondoren, esaterako. Autonomoak direnak ere etortzen dira, gehienetan bakarrik bizi direnak. Profil hain ezberdinak izan arren, guztiak talde berean egoteak harreman oso politak sortzea dakar.

### Zein uste duzue dela, gaur egun, gure zaharren arazorik larriena?

Gure ustez bakardadea da adineko jendearen artean ikusi dezakegun arazo

larriena. Gure erabiltzaileen artean ikusten dugun arazoa da.

Informazio gehiago jaso nahi izanez gero, **Astigarragako Eguneko Zentroa Arroitxulo bidea 43** zenbakian dago kokatuta eta gure telefono zenbakia honako hau da: **943 337 401**.

"Es importante que las personas que vienen sientan que forman parte de un grupo"

Creado para la atención y convivencia de las personas mayores, el Centro de Día de Astigarraga abrió sus puertas en 2012. Desde entonces acoge de lunes a viernes a diferentes usuarios de la zona de Astigarraga desde las 9:30 de la mañana hasta las 17:15 de la tarde. Durante esas horas, los usuarios comen, meriendan y realizan diferentes actividades: gimnasia, paseos, leer el periódico, actividades de memoria, laborterapia, juegos y talleres de cocina entre otras.

El centro ofrece quince plazas y en este momento todas están llenas. Maiden Murua, coordinadora del centro, y Miren Serrano, trabajadora social, explican que “el objetivo principal del centro es mantener la autonomía de los y las usuarias. Pero hacer sentir que las personas que vienen están en un grupo también es muy importante para nosotros. El hecho de que haya poca gente nos permite ofrecer una atención directa y así conseguimos hacer que se sientan como en casa”.

# Nahi dugun Astigarragarantz bidea egiten



## Nahi dugun Astigarragarantz Herri gogoetak

2023-2027

legegintzaldi hasiera gogoeta estrategikoen unea da, nahi dugun Astigarragarantz bidea egiteko unea. Datozen urteei begirako hausnarketa honetan, herri gogoetak ezinbestekoak dira, herritarrek eta eragileek ahotsa izatea. Horregatik, hurrengo hilabeteotan antolatu diren saioetara gonbidatu nahi ditugu herritarrak, euren nahiak eta beharrak gurekin konpartitzeko.



### JASANGARRIAGOA DEN ASTIGARRAGARANTZ

Abiatu berri den legegintzaldiko gogoeta estrategikoen baitan, Udalak datozen urtetako udalerriko garapen jasangarriaren norabidea finkatuko du, Astigarragako Toki Garapen Jasangarri Planaren bidez.

Garapen jasangarri honek harmonikoa izan behar du: ingurumenaren ikuspuntutik iraunkorra, gizartearen ikuspegitik zuzena eta ekonomiaren aldetik bideragarria, betiere kultur aniztasuna, errespetatuz eta gure kultura balorean jarriz.

Planak jasoko duen ikuspegia eta helburua eredu izango da Udaleko kargu politikoen zatiz zein sail ezberdinetako teknikarientzat. Horretarako, Udalaren barruko ikuspegia jasotzeaz gain, herritarren eta eragile sozialen, ingurumeneko eta ekonomikoen ikuspegiak ere bilduko ditu.

2023urtean zehar hiru saio egingo dira herritarren ekarpenak jasotzeko. *\*Ikusi datak taulan.*

### EUSKARAZ BIZI NAHI DUEN ASTIGARRAGARANTZ

Eusko Jaurlaritzaren Euskara Sustatzeko Ekintza Plana (ESEP) oinarri hartuta, euskararen biziberritze prozesua

bideratu eta euskararen erabilera sustatzeko 2024-2029 plan estrategikoa egikaritu nahi da.

Etengabe hazten ari den herria da Astigarraga. Hazkunde honek aldaketak eragin ditu egoera soziolinguistikoan eta neurriko erantzuna emateko funtsezkoa izango da, batetik, haur eta gazteengan fokua jartzea eta bestetik, euskararen biziberritze plana "behetik gora" eraikitzea, herriko norbanakoekin eta eragileekin eraikitako eta partekatutako bide-orria izatea, alegia.

Datozen urteetan Udalak euskararen arloan zein lehentasun izango dituen erabakitzeko eta hizkuntza-politika publiko ausart eta egokiak diseinatzeko, beharrezkoa da gogoeta kolektibo bat egitea, herritarren eta herri-eragileen partaidetzatik abiatutako plan bat.

Uneko egoera soziolinguistikoaren diagnostikoa osatzeko, zenbait herritarrekin elkarrizketak egingo dira. Eta galdetegi bat ere zabalduko da, ahalik eta herritar gehienentzat jasotzeko. Urriaren 10etik 23ra bitartean egongo da zabalik.

Urriaren eta azaroaren zehar, estrategikoak diren arlokako eztabaida talde irekiak egingo dira. *\*Ikusi datak taulan.*

## BERDINZALEGOA DEN ASTIGARRAGARANTZ

Emakumeek eta gizonek legearen aurrean eskubide-berdintasuna duten arren, oraindik ere bide luzea dugu egiteko benetako berdintasun eraginkorra esparru guztietan lortzeko. Jomuga horrekin 2020. urtean Astigarragako Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako III. Plana martxan jarri zuen Udalak lau urteko epealdirako (2020-2023) eta bertan udalerrian berdintasuna sustatzeko politika zehatzak planifikatugeneratu.

Aurtengoa Planaren azken urtea da, une egokia bi fasetan egingo den lan-keta abiatzeko: *\*Ikusi datak taulan.*

- Lehen fasean: azken lau urteotan egindako lanaren balantzea egingo da eta bereziki, aurrera begira jarriko ditugu indarrak, berdintasunaren alorrean udalerrian dauzkagun erronkak identifikatzen eta lehenesten. Horretarako, herritar orori zuzendutako saio bat antolatu dugu, guztion ekarpenak jasotzeko.
- Bigarren fasean: berdintasun alorrean identifikatutako erronka nagusiak lortzeko, helburu eta ekintza zehatzak adostuko ditugu herritarrekin batera eta modu horretara denon artean Berdintasunerako IV. Plana osatuko dugu. Saio hauek 2024. Urtearen hasieran egingo ditugu eta datak aurrerago zehaztuko dira.

## INKLUSIBOAGOA DEN ASTIGARRAGARANTZ

Astigarraga pertsona guztientzat, haien gaitasunak edo egoera edozein direla ere, irisgarria izan behar da. Aniztasun funtzionala (fisikoa, bisuala, entzumenekoa eta kognitiboa) duten pertsonak edota zaintza-lanetan dihardutenek oztoporik gabeko espazioez gozatzeko da helburua eta, horretarako, 2017. urtean onartutako Irisgarritasun Plana berrikusi eta eguneratu nahi da.

Gaiari buruzko herritarren ekarpenak jasotzeko hiru saio eta galdetegi bat antolatu dira: *\*Ikusi datak taulan.*

- Lehen saioa: Auzo-topaketak irisgarritasun beharrei buruzko lehen informazio-bilketa.
- Bigarren saioa: Irisgarritasun beharrei buruzko egoeraren analisisa.
- Horrez gain, galdetegi bat zabalduko da irisgarritasunari buruzko beharrik jasotzeko, azaroaren 7tik 21era egongo da irekita.
- Hirugarren saioa: Irisgarritasun Plan berrituaren aurkezpena.

Datozen urteetako politika publikoak diseinatu eta garatzeko lanabes izango dira partaidetza prozesu hauek. Prozesuetan jasotako lan-ildo guztiak plan estrategikoetan egikaritutako dira eta otsailaren erdialderako prest egotea

aurreikusten da. 2024ko udaberrian, edo lehen hiruhilekoan partaidetza prozesuen eta osatutako plan estrategikoen berri emango zaie herritarrei

## Haciendo el camino hacia el Astigarraga que queremos

El Ayuntamiento de Astigarraga El inicio de la legislatura 2023-2027 es momento de reflexiones estratégicas, de dar pasos hacia la Astigarraga que queremos. En esta reflexión de cara a los próximos años, es esencial dar voz a los agentes sociales y a la ciudadanía. Por ello, es importante participar en los procesos participativos organizados durante los próximos meses: proceso de elaboración del Plan de Desarrollo Local Sostenible, proceso de construcción del Plan de Acción para la Promoción del Euskera, proceso de diseño del Plan de Igualdad y proceso de actualización del Plan de Accesibilidad.

El Ayuntamiento ha organizado una serie de sesiones abiertas en las que se invita a participar tanto a la ciudadanía como a los agentes. Es un buen momento para hacer una pausa y decidir a través de una reflexión colectiva qué camino debe tomar Astigarraga en los próximos años.

HERRI GOGOETA	SAIO IREKIA	DATA
BERDINTASUNA	III. Planaren ebaluazioa	Urriak 18
	IV. Planaren diseinua	2024 urte hasieran
IRISGARRITASUNA	Auzo topaketak	Urriak 24 *ordu eta leku ezberdinak
	Beharren analisisa	Azaroak 14
	Galdetegia	Azaroaren 7tik 21era
	Plan berritua	Abenduak 12
EUSKARA	Hezkuntza eta familia	Azaroak 2
	Kultura, aisia eta kirola	Azaroak 9
	Nerabeak eta gazteak	Azaroak 16
	Lan-mundua	Azaroak 23
	Euskalgintza	Azaroak 29
TOKI GARAPEN JASANGARRIA	Egungo egoeraren analisisa	Azaroak 8
	Erronkak identifikatzea	Azaroak 22
	Ekintza plana garatzea	Abenduak 13



10:30 Joseba Barandiaran plaza  
12:00 Norberto Almandoz plaza  
15:30 Ergobiako probalekua  
17:00 Kontxa Etxeberria plaza

**Gorde data!**

**Oharra:** Saio guztiak arratsaldeko 18:00etatik aurrera, Erribera Kulturunean. Saiotan parte hartzeko ez da beharrezkoa izango aurrez izena ematea. informazio guztia [astigarragarantz.eus](http://astigarragarantz.eus) webgunean dago

## KZgunea martxan da, ordenagailuekin eta zerbitzuen eskaintza zabal batekin

Erribera Kulturgunean kokatu da, ikasgelaren gune berean, eta dagoeneko erabiltzaileek altan eman dezakete gunea erabiltzeko.



KZguneak herritarrei Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologia hobe ezagutzeko laguntza eskaintzen die. Besteak beste, formakuntzak eskaintzen ditu, kontsultak erantzuten ditu eta azken nobedade teknologikoen berri ematen du.

Smarthphonen eta tableten erabilera inguruan izan da lehenengo ikastaro presentziala eta lehenengo tutoretza azaroaren 20an izango da.

KZgunea Erriberan kokatu da, ikasgelaren gune berean. Espazioa erabiltzeko, Erriberako harreraren eskuratu daitekeen eskaera orria bete behar da eta bost euroko fidantza jarri. Erabiltzaile bakoitzak giltza bat jasotzen du eraikina itxita dagoenean ere sartu ahal izateko. Dagoeneko sei ordenagailu ipini dira KZgunean eta horiek erabiltzeko KZgunean altan emanda egon behar da.

### KZgunearen eskaintza

KZguneak tutoretzak eta ikastaroak eskainiko ditu.

Tutoretzak bi hilabetero eskainiko dira Erriberan eta saio horietan hainbat zerbitzu eskainiko dituzte, hala nola, aholkularitza pertsonalizatua, ikasta-

roetarako izen-ematea, IT txartela eta BAKQ txartelak egitea eta metaposta zerbitzuan altan ematea.

Ikastaroek, berriz, hainbat modalitate izango dituzte:

- Aurrez aurreko ikastaroak. Urtean aurrez aurreko hainbat ikastaro eskainiko dira Erriberan formatzaile baten eskutik. Ikastaro hauetarako izen-ematea Erriberako harreraren egin beharko da.
- Urruneko ikastaroak. Erabiltzaileak urrunetik eta norberak bere erritmoa egin ahal izango ditu, hezitzaileek online emandako laguntzarekin.
- Hitzaldiak. Gai zehatzen inguruko hitzaldiak ere antolatzen dira, batez ere, teknologia berriei lotuta.
- Bideo-konferentzia bidezko ikastaroak. Erabiltzaileek talde murriztuetan egiteko aukera izango dute eta, batez ere, ezagutza teknologikoetan aurrera egin nahi duten pertsonen zuzenduta daude.

KZguneari buruzko informazioa eta ikastaroen eskaintza osoa KZguneko webgunean kontsulta daiteke: [www.kzgunea.eus/eu/hasiera](http://www.kzgunea.eus/eu/hasiera)



### El espacio KZgunea ya está en marcha, con ordenadores y una oferta completa de servicios

El espacio se ha situado en el Centro Cultural Erribera, en la misma sala del aula de estudio y las personas usuarias ya pueden darse de alta para utilizarlo.


KZgunea ofrece ayuda a la ciudadanía para conocer mejor las Tecnologías de la Información y la Comunicación. Entre otras cosas, ofrece formaciones, atiende consultas y da a conocer las últimas noticias tecnológicas.

Para poder utilizar el espacio, es necesario rellenar la hoja de solicitud que puedes adquirir en la recepción de Erribera y depositar una fianza de cinco euros. Además, las personas que quieran utilizar los ordenadores instalados en la sala deben darse de alta en KZgunea.

KZgunea ofrece tutorías y cursos en diferentes modalidades: presenciales, a distancia, conferencias y video-conferencias.

Más información y oferta de cursos en la web:

<https://www.kzgunea.eus/es/inicio>



## Udaltzainek pistolarik eraman behar al dute?

Segurtasuna eta udaltzaingoaren papera eztabaidaren erdigunean dauden une honetan, Eusko Jaurlaritzak dekretu berri bat iragarri du, udaltzainek pistolarik eraman behar al duten ala ez planteatzen duena.

Gai horrek eztabaida sortu du Astigarragako alderdi politikoaren artean, eta herriko segurtasunari eta su-armen erabilerari buruzko ikuspuntuak eta argudioak azaldu dituzte.

Xabier Urdangarin

EHBildu

Eusko Jaurlaritzak, dirudienez, laster onartu eta jarriko du indarrean udaltzaingoetan suzko armen derrigorrezko erabilera orokortzeko dekretua. Bi gogoeta nagusi sortzen dizkigu: batetik, Udaltzaingoaren lanean modu orokorrean suzko armak beharrezkoak ote diren eta hori ote den nahi dugun udaltzaingo eredu eta, bestetik, non geratzen den udalen autonomia eta erabaki ahalmena.

Gure ustez Astigarragan Udaltzaingoak ez du suzko armarik behar. Historian zehar, Astigarragan suzko armekin kudeatu beharreko egoera edota gertakarien errepaso egiten aritu gara eta ez zaigu bat bera ere bururatu. Astigarragako (eta beste herri asko eta askotako) delituen kopuru eta larritasunak (oro har delitu arinak) justifikatzen al du derrigorrezko suzko armen erabilera orokorra? Ezezkoan gaude. Suzko armek, gainera, konfiantza eta gertutasuna oztopatzen dutela uste dugu eta guk hurbileko udaltzaingoa nahi dugu, konfiantzan eta prebentzioan oinarritutakoa.

Bestetik, udalen autonomia non geratzen da? Ezin al dugu udalok gure udaltzaingoaren eredu landu eta erabaki? Horrela erabakitzen duten udalek beren udaltzaingoetan suzko armak erabiltzea ez dugu zalantzan jarriko (udal bakoitzak ikus dezala zer egin), baina beste era bateko udaltzaingoaren alde egiten dugun udalen autonomia goitik behera zapuzten du Jaurlaritzaren asmoak.

El Gobierno Vasco, al parecer, aprobará y pondrá en vigor en breve el decreto para generalizar el uso obligatorio de armas de fuego en las policías locales. Nos genera dos reflexiones principales: por un lado, si las armas de fuego son necesarias de manera general en el trabajo de la Guardia Municipal y si ese es el modelo de policía municipal que queremos y, por otro, dónde queda la autonomía y la capacidad de decisión de los ayuntamientos.

Entendemos que en Astigarraga la Policía Municipal no necesita armas de fuego. Hemos estado haciendo un repaso de la situación y/o acontecimientos a gestionar con armas de fuego en Astigarraga y no se nos ha ocurrido ninguno. Estamos en el no. Las armas de fuego, además, creemos que dificultan la confianza y la cercanía y nosotros queremos una policía local cercana, basada en la confianza y la prevención.

Por otro, ¿dónde queda la autonomía municipal? ¿No podemos los ayuntamientos elaborar y decidir nuestro modelo de policía municipal?

En un momento en el que la seguridad y el papel de la policía local están en el centro del debate, el Gobierno Vasco ha anunciado un nuevo decreto que plantea si los policías locales deben llevar o no pistolas.

Esta cuestión ha generado un debate entre los partidos políticos de Astigarraga, que han expuesto sus puntos de vista y argumentos sobre la seguridad en la localidad y el uso de armas de fuego.

Maria Otaegi

EAJ-PNV

Egia da oso eztabaidatutako gaia izan dela eta ez bakarrik eztabaidatua baizik eta, kritikatu ere izan da Gipuzkoako udal askotan. Beste aldetik, sindikatuek Eusko Jaurlaritzak onartutako legea, ontzat eman dute nahiz eta udaltzainen artean adostasunik ez izan. Hala ere, onartutako legea da eta, bere osotasunean, 2028rako martxan jarriko dena. Azken finean, eztabaida guztien gainera, legeak duen helburua Udaltzainen lan baldintzen onizate eta segurtasuna hobetzea da.

Udaltzaingoa gorputz armatua da legeak horrela aurreikusten duelako, eta legeak horrela aurreikusi du beharra antzeman delako.

Agindu hori betetzeak ez du esan nahi udaltzain guztiak kasu guztietan arma eraman behar dutenik. Lege testua oso argia da arma erabili daitekeen egoerak zeintzuk diren zehazten: udaltzainak beraie burua arrisku latzean ikusten dutenean eta inoiz ez, ezingo dute erabili, zerbitzuz edo lanez kanpo badaude.

Badago aukera ere udaltzainburuak egindako txosten baten bidez eta alkatearen oniritziarekin, udaltzainek armarik gabe lan egitea adibidez, eskola inguruetan trafikoa bideratzen ari direnean edota bulego lanak egiten dituztenean.

Es cierto que ha sido un tema muy debatido y no sólo debatido, sino criticado en muchos ayuntamientos guipuzcoanos. Por su parte, los sindicatos han dado el visto bueno a la ley aprobada por el Gobierno Vasco pese a la falta de acuerdo entre la policía local. En definitiva, el objetivo de la ley es, por encima de todas las controversias, mejorar el bienestar y la seguridad de las condiciones de trabajo de los y las agentes municipales.

La policía local es un cuerpo armado porque así lo prevé la ley y así lo ha previsto porque se ha detectado la necesidad.

El cumplimiento de esta orden no implica que todos deban llevar el arma en todos los casos. El texto legal es muy claro sobre cuáles son las situaciones en las que se puede utilizar el arma: cuando los y las agentes de la Policía Municipal se ven en serio peligro y nunca, si están fuera de servicio.

También existe la posibilidad de que mediante un informe del Jefe de la Policía Local y con el visto bueno del Alcalde, los y las agentes de la Policía Municipal trabajen sin armas, cuando se esté tramitando el tráfico en las inmediaciones de las escuelas o realizando labores de oficina.

# ASTIARRAKO GAU BELTZA



## Urriak 28 larunbata

17:00 | Erribera kulturgunean

**Gau Beltzan nola jantzi?\*** +

**Kalabazak egiteko eskulan tailerra**

Tailerrerako izena eman behar da  
astiarakogaubeltza@gmail.com  
helbidera idatziz.

\* Etxean dituzun maindire, zapi eta arropa  
zaharrak eraman.

## Urriak 29 igandea

19:00 | Erribera kulturgunean

**"Misterio en Venecia"**

intriga eta beldurrezko filma

## Urriak 31 asteartea

17:30etatik aurrera | Foru plazan

**Makillaje tailerra + Fotokola**

19:00 | Foru plazatik abiatuta

**Hilerrirako bidea elkarrekin**

19:30 | Hilerritik abiatuta

**Kalejira**



ASTIGARRAGAKO  
**Ixiokaria**  
UDAL AIDIZKARIA

  
Astigarragako Udala

**Astigarragako Udala**

Foru Enparantza 13  
20115 Astigarraga  
Tel: 943 335050  
udala@astigarraga.eus  
[www.astigarraga.eus](http://www.astigarraga.eus)

